

Ramon Etxezarreta

IDAZLEA

## Krisirik ez, 17 kilometro liburu eta erdi

**H** amabost urtetik gora izango dira L. N. lehendakariarenera zerbitzari, neskame, joan zela. Euskaldunak nahi izaten zituzten, mendikoak hobe, zintzoak, jatorrak, esanekoak, prestuak. Baserritik jauregira joan zen. Ez oso eskolatua baina, argia eta entzunekoa, jatorra, zintzoa eta zuzena. Harri landu gabea zen baina berezko onekoa, gure mendiek ematen dituztenak bezalakoak. Kontua ez zen etxeko lanak egiteko ingeniari titulua exijitzea, beraz oso ondo zegoen, ez zetorren liburupean itotzera. Azkenengo liburua eskolan ikusia zuen, etxean horrelakoetatik ez zuten behar ez eta mezetarakorik ere, ez zeukaten galtzeko denborarik. Argi zeukan lehendakariarenean ikus zitzakeen liburu eta paperak ez zirela beretzat, etxe hartako norbaitentzat zirela.

Ezkontzara arte iraun zuen. Ezkondu eta jaiotetxera itzuli zen, senar eta guzti. Artzaintzan eta ume eta etxe zain aritu da urte hauetan, gaztagile ezagun ere bilakatu da. Argia izaten jarraitzen du, bizkorra, langilea, jatorra, zuzena, ama eta etxekoandre ona. Herritik gora bizi da, hiru bat ordu-laurdena oinez, Land Roverrean saltokada bitan iristen da. Herrian eliza dago, zortzieroko elizki-zunetarako eta urteko pare bat hiletetarako.



DANI BLANCO

Gaixotuz gero, lehen sendagilea herritik bederatzi kilometrora dauka, ez dakit oinezko minutuak kalkulatzeko, eta botika eta umeen eskola hamahiru eta erdira. Oso ondo bizi da, pozik, Euskal Herriaren euskal bihotzean dagoela esan genezake.

Neskame atera zenetik gaurdaino hamabost azokatik gora ospatu da Durangon urteroko abenduetan, arrakastaz, orriz orri, lerroz lerro, letraz letra. Hitz handi gozoak esateko aukerak izan dituzte agintariek, idazleek, editoreek eta euskaltzaleek. Zein aurrerabide garrantzitsuak egin diren, zein denboratarara egokitze ezin aproposagoak.

L. N.-k neskame atera zen egunean bezain hurbil dauka dagokion liburutegia, etxetik herrira hiru ordu-laurden oinez, herritik liburutegira hamahiru kilometro eta erdi, garraio publikorik gabe. Ez daude euskal nobela guztiak liburutegi horretan. Ez dago liburutegirik bere haurren eskolan. Ez dio euskal sareak bermatzen eskuetara euskarazko libururik helarazteko modurik.

L.N.-ren seme-alabek jende jatorra izaten jarraituko dute. Krisia ez dela Durangora iritsi diote berripaperek. Euskal liburuen apalategietatik zenbat ordu edo kilometrora bizi behar ote da? ■

« Krisia ez dela Durangora iritsi diote berripaperek. Euskal liburuen apalategietatik zenbat ordu edo kilometrora bizi behar ote da? »

## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Ematen du krisiak ez duela eraginik izan kultura ekoizpenetan entzuteak.

Durangoko Azokaren arduradunek hori dute lehen bilana, ekoizle zenbaitekin kontrastatutakoa nonbait. Ohituak gaituzte bestela komertzianteez, beti ere negarti, orokorrean krisi hitza erabiltzen ez dugunean ere, etengabe ez dela aski saltzen esaten digutenean, kontsumitzen duguna gutxi dutelakoan. Ez dakit estrategia ote duten hala izaera. Handik hurbil, Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren finalurrekoak mila eta berrehun bat jende bildu du. Honen arrakas-

## Poza

zortzikoteak mundu bat erakarriko duela bermatuta dagoela. Finalurreko saioaren kroniketarik, Xabier Leteren *Izarren hautsaz* Mikel Laboaren bertsoa oinarri, Igor Elortzak egokitutako bertso doinuak piztu dit entzuteko gogo, hamar zortzi, hamar zortzi, hamar hamar zortzia begiz nola egituratu duen ikusi eta kantatzen saiatu ondoren, bertsolariak ohikoa duten puntu neurrian errimen erabilpen ez ohikoak belarrik ikasi, jan, eta uzten didan zaporea gozatu nahi dut. ■